



Euskal Herriko Bertsazole Elkarteak eta herrialdeetako elkarteetako ordezkariak, atzo, Bilbon, 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aurkezpenean. MARISOL RAMIREZ/FOKU

# Txapela batentzako eskeletoa

Guztira, hamalau saio izango ditu 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak, «euskararen lurralde osoan» eta ohiko hiru faseko sailkapen sistemarekin • Gaurtik aurrera izango dira sarrerak salgai

## Iñigo Astiz Bilbo

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak badu eskeletoa. Ezaguna zen jadanik zer 42 bertsolari arituko ziren kantuan, eta orain jakinarazi dituzte irailaren 24tik abenduaren 18ra «euskararen lurralde osoan» antolatutako hamalau saioko egutegia eta sailkapen sistema. Euskal Herriko Bertsazole Elkarteak lurraldeko ordezkariekin eta antolakuntza taldeko zenbait kiderekin batera eman ditu nondik norakoan azalpenak Gontzal Agote elkarteak lehendakaritzako kideak: «Gure nahia da orain bertsolariei hitza ematea, eta lekua uztea bertsolaritzan dagoen aniztasunari, aberastasunari, bakoitzaren ukituari eta sormen lanari, eta hemendik aurrera bertsolaritza izan dadila berriz ere protagonista». Gaurtik aurrera egongo dira saio guztiarako sarrerak salgai, [www.bertosarrerak.eus](http://www.bertosarrerak.eus) atarian, eta hainbat abantaila izango dituzte Bertsazole Elkarteak bazkideek.

Koronabirusak eragindako krisiaren ondoren, oraindik ere «erabat normaldu gabe» ikusten dute bertso plazen egoera elkarreko ordezkariak, baina «bere onera» itzultzen igartzen dute jadanik, eta horregatik ikusten dute aukera txapelketa «duin eta txukun bat» antolatzeko. Elkarteak ordezkariak hitzetan, ezinbestean, loturik baitoaz plazak eta txapelketa, eta lan zabalago baten puntarik ikusgarriena baino ez baita Bertsolari Txapelketa Nagusia.

### 2017ko finalean izan ziren bertsolariak finalurrean hasiko dira kantuan, eta Maialen Lujanbio, finalean

Zehazki Getxon (Bizkaia), Arrasaten (Gipuzkoa), Gotaine Irabarnen (Zuberoa), Gasteizen, Donostian, Lizarran (Nafarroa), Elizondan (Nafarroa), Donibane Garazin (Nafarroa Beherea), Iruenen (Gipuzkoa), Durangon (Bizkaia), Amurrion (Araba), Baio-

nan, Bilbon eta Iruñean izango dira saioak.

### «Urte gogorak»

Berez, 2021ean zen txapelketa hastekoa, baina urtebete geroago hasiko da azkenean. Horregatik, osasun krisiaren ondorioz izandako etenaldiaz ere egin dute go-goeta aurkezpenen. «Orain arte ezagutu gabeko ataka batean izan da bertsolaritza: bertso plaza ia erabat geldirik, sortzaileak kinka larrian, gure ekosistema egun batetik bestera hankaz gora, bertso eskolak halaberrez mutu, ekimen franko bertan behera». Egoera «gordin» horrek izan du «ifrentzua», halere, eta jasotako elkartsuna aipatu dute adibidetzat. Gainera, geldialdia «munta handiko» hainbat gai lantzeko ere baliatu dutela esan dute. «Kulturak gizaratean duen zereginez eta sortzaileen lan baldintza duinez mintzatu gara azken hilabeteotan».

«Urte gogorak» izan direla onartuta ere, «gauza batzuetan» balantze positiboa egiterik ere badela argudiatu dute.

### Sailkapen sistema

Aurreko aldiako sailkapen sistema bera izango du txapelketak aurtun ere.

Lehen fasean 36 bertsolarik hartuko dute parte, eta haietako hemeretzi pasatuko dira finalurrekoetara. 2017ko finalista izandako bertsolariek finalurrekoetan hasiko dute lehiaketa, eta, beraz, fase horretan hasiko dute txapelketa Unai Agirrek, Amets Arzallusek, Sustrai Colinak, Beñat Gaztelumendik eta Aitor Mendiluzek. Bi itzuli izango ditu finalurrekoen fase horrek, 24 bertsolarik kantatuko dute lehenengoan, eta hemezortzi onenek bigarrenean, eta bi itzulietan lortutako puntuen arabera erabakiko da zer zortzikote ariko den finalean Maialen Lujanbio egungo txapelkunarekin batera kantuan.

Igor Elortza eta Aitor Sarriegi ere izan ziren 2017ko finalean, eta, beraz, bazuten aukera aurtengo txapelketan finalurrekoetan kantuan hasteko. Aukera horri uko egitea erabaki dute, ordea, eta horregatik dira bost aurtun finalurrekoetan, eta ez zazpi.

Izan dira uko gehiago ere. Herrialdeko txapelketetan lortutako puntuazioak Txapelketa Nagusian egoteko aukera eskaintzen zien, esaterako, Beñat Lizasori, Etxahun Lekuier, Jokin Urangari, Jon Maiari eta Odei Barrosori, baina ez kantatzea erabaki dute. Horregatik, haien ordez, Beñat Iguaran, Haritz Mujika, Imanol Uribe, Maialen Akizu eta Patxi Iriart arituko dira kantuan.

### Iruñeko finala

Finalaren kokapena izango da aurtengo Txapelketa Nagusiaren berritasun nagusietako bat. Lehenengo, Iruñean egingo dute finala, abenduaren 18an, Nafarroa Arenan, eta 13.000 ikusle hartu ahaliko ditu aretoak. Donostian

## EGUTEGIA

## Lehenengo fasea

**Irailak 24.** Getxoko Muxikebarri zentroan (Bizkaia).

**Irailak 25.** Arrasateko Amaia Udal Antzokian (Gipuzkoa).

**Urriak 1.** Gotaine-Irabarneko Herriko Gelan (Zuberoa).

**Urriak 2.** Gasteizko Europa jauregian.

**Urriak 8.** Donostiako Viktoria Eugenia antzokian.

**Urriak 9.** Lizarrako Los Llanos kulturgunean (Nafarroa).

## Finalurrekoen lehen itzulua

**Urriak 22.** Elizondoko Baztan pilotalekuan (Nafarroa).

**Urriak 29.** Donibane Garaziko Jai Alai ezker paretan (Nafarroa Beherea).

**Azaroak 5.** Irungo Ficoba erakustazokan (Gipuzkoa).

**Azaroak 12.** Durangoko Landako Gunean (Bizkaia).

## Finalurrekoen bigarren itzulua

**Azaroak 19.** Amurrioko Bañueta kiroldegian (Araba).

**Azaroak 26.** Baionako Laugan.

**Abenduak 3.** Bilboko Bizkaia frontoian.

## Finala

**Abenduak 18.** Iruñeko Nafarroa Arenan.

\*Kanporaketa saioak 17:00etan hasiko dira, eta finala 11:00etan.

egin izan dira finalak 1935etik 2001era arte, eta lautan egin da Barakaldon (Bizkaia), BEC erakustazokan. Nafarroa Arenak dituen azpiegiturek ahalbidetu dute orain aldaketa, elkarteko ordezkariak esan dutenez. Baina ez da hori izan arrazoi bakarra. «Orain ikusi da bazela aukera Iruñean egiteko; besteak beste, azpiegitura berri bat dagoelako, eta txapelketaren beraren izaeran euskararen lurralde osoa hartzea dagoelako».

Agotek borobildu du azalpena: «Ez diogu bakarrik bertsozaritza-tik begiratzen: kultur gintzatik eta euskaratik ere begiratzen diogu».

Nafarroako Bertsozale Elkartearen ere egongo da aukera finaleko sarrerak aurrez aurre erosteko, eta elkarteko bazkide direnek erreserbatua izango dute finaleko sarrera ekainaren 30era arte. Finalerako autobus eta bazkari zerbitzua ere antolatuko dute, baina irailean emango dute haien berri.

BERRIAK jarraipen berezia egingo dio txapelketari.



Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)